



Esp. kodea: 2025EDIR0010
Titularra: IBAN ARANTZABAL ARRIETA

Gaia: 2025eko dirulaguntza: irratan podcastak
sortzeko

Hitzarmena

Arrasateko Udala eta Goiena komunikazio taldearen artekoa, Arrasate irratarako podcastak sortzeko

Bildurik

Alde batetik,jauna, NA duena, adinez nagusia, Goiena Komunikazio Taldearen izenean eta errepresentazioz.

Eta bestetik,, NA duena, adinez nagusia, Arrasateko Udaleko alkate-udalburua, beronen izenean eta ordezkari duena, horretarako behar bezala ahaldundua dagoelarik.

Bi aldeek, hitzarmena egiteko eskuduntza eta gaitasuna aitortzen diote elkarri.

Lege testuingurua

Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak herritarren hizkuntza eskubideak aitortu eta herri-aginteei hizkuntzaren alorrean dituzten betebeharrak ezartzen ditu. Albisteak eta informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea aitortzen die herritarrei, besteak beste. Lege horren arabera, beraz, Euskal Herriko herri-aginteei –eta, zehazkiago esanda, udalek– euskara zabaltzeko eta zabaltzeko laguntzeko obligazioa dute, bai eta komunikabideen arloan ere.

Horretaz gain, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, 7. artikuluan zehazten du udalei izendatzen zaiela eskumen propioa gisa, izendatuta dauzkaten arloetako zerbitzu eta jardueretan euskararen erabilera sustatzeko eta euskararen normalizazioa planifikatzeko eskumena.

Azalpenak

Handia eta aberatsa izan da azken urteotan Arrasaten eta Debagoienean herri eta eskualde komunikabideen alde egindako lana eta ahalegina. Horren fruitu emankor bilakatu dira herritarrengandik hain harrera ona eta beroa jaso duten Goiena papera, Goiena telebista, Goiena.eus eta Arrasate Udal Irratia.

Proiektu horietan guztietan, Arrasateko euskara elkarteek berebiziko garrantzia izan dute, euren ekimenez sortu baitira komunikabideak. Herri aginteei, bestalde, ezinbesteko bultzada eman diete, behar zituzten azpiegiturak, baliabideak, dirulaguntzak eta babesa eskainiz. Herri ekimenaren eta administrazioaren arteko elkarlanaren fruitu dira, beraz, gaur egun Goiena Komunikazio Taldeak kudeatzen dituen komunikabideak. Arrasateko Udalak garrantzi handiko deritzo, batetik, Goiena Komunikazio Taldeak egiten duen lan eskergari behar bezalako laguntza ematen jarraitzeari eta, bestetik, bide batez geroa ziurtatu eta sendotzeari ere.

Hori guztia dela eta, hitzarmen hau izenpetzen dute, ondorengo klausulen arabera:

Kodea	BD25/00056	Udala	Arrasate/Mondragón
CUDO	000.0055.AAA1B0N3.9.7i5n		
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1B0N39.7i5n		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia			



Esp. kodea: 2025EDIR0010
Titularra: IBAN ARANTZABAL ARRIETA

Gaia: 2025eko dirulaguntza: irratiari podcastak
sortzeko

Klausulak

Lehenena. Hitzarmen honen helburua da 2025ean Goiena Komunikazio Taldeak eta Arrasateko Udalak, elkarlanean eta Goienaren ardurapean, 2025ean irratiari podcastak sortzeko dirulaguntza xedatzea.

Bigarrenena. Hitzarmen honen bidez, irratiari podcastak sortzeko jarduerak 30.000 €-rekin lagunduko ditu Arrasateko Udalak.

Hirugarrenena. Koordinazio mekanismoak eratuko dituzte bi aldeek, erabakiak hartu aurretik adostasuna lortzea beharrezkoa den kasuetarako. Koordinazio mekanismo gisara bitariko batzordea eratzea adosten da, hitzarmen honen betetze eta interpretazioan sor daitezkeen arazoak ebazteko egitekoarekin. Batzorde hori osatuko dute Euskara saileko zinegotzi eskuordetuak eta Goiena Komunikazio Taldeko Lehendakariak.

Laugarrenena. Hitzarmen honek finkatzen duen dirulaguntza hamabi zatitan ordainduko dio Arrasateko Udalak Goiena Komunikazio Taldeari. Hitzarmen hau sinatu eta berehala ordainduko dio Arrasateko Udalak Goiena Komunikazio Taldeari urte hasieratik hona pasatu diren hilabeteen likidazioa, emandako aurrerakinak deskontaturik.

Bosgarrenena. Aurtengo jardueraren azalpen memoria aurkeztuko du Goiena Komunikazio Taldeak datorren 2026ko urtarrilaren 15a baino lehen, eta, horrekin batera, emaitzen balorazioa eta diru kontuen likidazioa. Era berean, elkarlanean finantza egoerak (egoeraren balantzea nahiz galera eta irabazien kontua) aurkeztuko ditu Goienak, 2026ko maiatzaren 31 baino lehen, enpresa eskudunak auditaturik, dagokion erregistro ofizialean behar bezala izena emanda. Aipatutako finantza egoera ikuskatuak aurkezteaz gain, lagundutako programei dagokien deskargu ekonomikoa aurkeztu beharko du, benetan sortu diren gastuak eta diru sarrerak adierazita, eta baita horiek egozteko erabili diren irizpideak ere.

Seigarrenena. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eman ditzakeen dirulaguntzak justifikatzeko beharrezko fakturen kopiak eta ziurtagiriak ere Goiena Komunikazio Taldeak prestatuko ditu.

Zazpigarrenena. Alderdiek ez badituzte dagozkien betebeharrak betetzen, hitzarmena bertan behera uzteko prozedura hasiko da. Hitzarmena bertan behera utziz gero, hitzarmena bete duen alderdia bere betebeharrak betetzetik salbu geratuko da.

Zortzigarrenena. Hitzarmen honek urtebeteko iraunaldia izango du, baina automatikoki bertan behera geratuko da, 2026 urteari dagokion hitzarmena sinatzen den egunean.

Eta horrela jasota uzteko eta adostasuna adierazteko, honako hitzarmen hau egin, eta izenpetzen dute bildutakoek.

Goiena Komunikazio Taldeko lehendakaria

Arrasateko Udaleko alkate-udalburua

Kodea	BD25/00056	Udala	Arrasate/Mondragón
CUDO	000.0055.AAA1B0N3.9.7i5n		
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1B0N39.7i5n		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia			